

Disoluzio agiriak, Eako Txarake irakurle txokoan

2019-10-25

Disoluzioaren adiera zabalduenak seguru asko kimikarekin izango du zerikusia. Disoluzioa substantzien nahastura homogenea da. Hasi suspentsiotik, edo salda meheenetik, eta saturazio trinkoenera heldu bitartekoa izan daiteke.

Agiriak hitzarekin, berriz, dokumentuak, frogak, testigantzak direla baino ez da nahi adierazi.

Beraz azken urteetan bizi izandakoen lekukotza poetikoa jasotzea izan dut xede. Ohi bezala bestalde. Egundaino ez bainaiz nire literatur jardunean besterik egiteko gauza izan.

Egokitu edo suertatu zaigunetik, emana etorri zaigunetik eta, hartua dugunetik, pentsatu eta egiten dugunetik osatuak gaudela uste dut. Errezitaldi hau ere bi alderdi horien artean eratzen saiatuko naiz: batetik emana izan zaigunaren itzalaren arrastoak jarriko ditut zuen aurrean eta, bestetik, inguru gertuan jasotakoekin egin dudanetik emango dizuet entzuteko.

Gauza asko joan dira bizi ditugun urteen harian, eta beste elementu berri asko datoz, eta gauza asko dira etengabe bidean. Disoluzioak hain adiera askotarikoak izan ditzakeenez, hasi eta ia batera poema liburu honen giltzarri dezente biltzen dituen testu bat irakurri nahi dizuet.

TXATALAK MARY WOLLSTONECRAFT SHELLEYRENTZAT

—I—

Agiri bat zor nizun
aspaldi behar zuena
baina gaur dakarkizut:
badakit osatu gabe dagoena
hor behar baitute askok
oraino jazo ez direnak

agiri bat zor nizun
ez izartegia
promesa ederren brumatan
ez bortuetan arranoak
hilezin izateko eskolan:
ez dakit inoiz izan den
baina jada ez dagoela dirudi
denontzako etxe bat

jarriko gara
ohiturik gaude
estetika liriko batez
lotuko gatzaizkio berriz
herri honen bilatze antolatuan:
agonia ezti batean laketu
jendea gara

erlaro mintsu bat pausatu da:
ez dago dena konpontzerik
agian egun txikien segida
eramangarri bat posible izango zen
baina ez ginen aski indar batzeko gai izan
edo ez genuen jakin

inori erauzi gorputz atalekin
eratua dago sasoi hau
hala moduz
piezak falta dituela:
nire nazioa erdi osatuan da

—II—

hitzorduak berritu
eta maite duguna zer den
zer libre izatea gaur
nazio bat osatzeko
aski diren gorputz bi
eta grina suhar bat
nahi nieke atera
nonahiko ereserki
eta banderei

bestek egindako mundu batera
erori ginela deklaratzeko aholkua
serio hartu izan dut:
nor ez da hazi baina
haurtzaro ukatu batekin nolabait
erdi jandako jendarte batean
hizkera esklabo bat ahoan

nork ez du atsegin
zaputz erreen ilintietatik jaiki
bortuetara igan
eta lurraren arrasean etsi partez
arranoen hegaldia miratzea

hemen gorputz asko
arima anitz
txatalka apurtu da
kiskali
hautsi:
handiegien ispiluetan galdu ginen
eta han ez da sute irteerarik

bidegabez
adorez
dolorez
bandera eta ereserki bana
ordaindua dukegu guk ere
munduko beste askok bezala

—III—

Erdizka egindako
mundu batera jaio bide ginen
erdi egina zegoelako
geuri zegokigulakoan
beste erdia osatzea
baina izan ginen gutxiegi
edo ez aski trebe
eta hatz mamiekin ukitutako
aukera haiek
bulkada liriko bitan hustu ziren

euskalduna askatuko da agian
osmosi hutsez
geu baino zapalduagoak jagoten
gidari edo mugazain
agian kapitalak ezarri
gutasun urtsu batez
inonez unibertsalean

zaila behar du
han-hemen bildutako gorputz atalak
hitzak lurra pentsamenduak
premiak desioak gosea
jendearen gogo-gorputzen neurrira ekarri
eta ematea bakoitzari toki duin bat

jada ezin da atzera egin
ezin da inor zauritu aurreko garaira

—IV—

Agiri bat zor nizun
agiri bat azaltzeko
historiaren aihenetan trabaturik
baina oraindik bagarela

agiri bat zor nion nire buruari
agiri bat gaurko sasoiari
ataletan emana
geu bezala
zatiturik,
gogo da
gorputza
eskain dezakegun
azken aurreko komunikatua:
haren puskak
haren zainak
itsustutako historia bat

ahaztu antzean dut
nola jaio ginen mundura
non jarri gintuzten
negar haien istil eta musikak
beharbada orduan ikasi genuen

gorputz soil ez ezik izan baginela
jendarte zaugarri
leherkor
arriskuz betea

erlaro mintsu bat
eta jada ezin da atzera egin
ezin da inor zauritu aurreko garaira
baina agian bai
egun txikien segida
eramangarri bat

agiri bat zor nizun
osatu gabea
—hor behar baitute
oraino jazo ez direnek—
biluzik
libreki emana
adostu ezina erabat
piezak falta dituen

geure gorputz atalekin
josi nahi nuke oraina

Agiri garaikideak. Testuinguruak beti izan du munta handia. 2019. urtean gaude, eta ziklo baten amaieran eta beste zerbaiten atarian ote gauden barrundatzen dut. Ertzetako kontu batzuk soilik gogora ekartzeko esango dut ETArekin eta Francoren Egonkortze Planarekin bateratsu jaio nintzela, eta 2018an, besteak beste, ETAk desegiteko erabakia hartu zuela eta Lehen Greba Feminista burutu zela Euskal Herrian. Aurten, berriz, 60 urte bete ditut.

Abiatu berri dugun irakurketa saio hau makuludun irakurraldia izatea nahiko nuke, alegia lagun izango ditudan bi libururen aipuak sartuko ditudala han eta hemen. Gisa horretan bilduma honen hainbat ageriko oihartzun, ispilatze eta inguruabar adar joriagoz erakusten saiatuko naiz. Ulerpideak osatze aldera eta irakurraldia gozotzeko asmoz.

Izan ere, Bibliako *Hasierak* batetik, eta Mary Wollstonegraff Shelleyren *Frankenstein edo Prometeo modernoak* bestetik, liburu honetan funtsezko diren bi ideia edo ardatz sendotzera datozkit. Kreatzioaren ideia da bata, eta gure izate zatitu eta fragmentarioaren ideia da bigarrena.

Ez nuke nahi, noski, ezein eskola biblikotako ekinaldi bihurtu nahi saio hau, baina gauza guztien hasieraren bertsio ezagun honen txatalak doi-doi argi egitera datozkit, era sotil eta lauso batean gu ere produktu kultural eta sozial garen aldetik, nondik gatozen erakusteko.

“Hasieran, Jainkoak zeru-lurrak egin zituen. Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunpea. Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen.

Eta Jainkoak esan zuen: «Izan bedi argia».

Eta izan zen argia. Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen ilunpeetatik: argiari «egun» eman zion izen eta ilunpeei «gau». Honela, lehen eguna burutu zen”.

Eta egun horri jarraitu zitzaizkion beste lau, eta gauza bat eta bestea, laburtu beharrez seigarren egunean jarriko gara.

“Jainkoak esan zuen: «Eman bitza lurrak orotariko bizidunak: abereak, piztiak eta narrastiak».

Eta hala izan zen. Jainkoak orotariko bizidunak sortu zituen: abereak, piztiak eta narrastiak. Eta Jainkoak ona zela ikusi zuen.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia; izan bedi gure irudiko, gure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, basapiztiak eta lurlean narraska dabiltzan piztia guztiak».

Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen.

Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: “Sor itzazue umeak eta ugaldue, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurlean narraska dabiltzan piztia guztiak”.

Hona larrialdi klimatikora garamatzan bide eroak zertan dituen erro ideologikoak ... Bidean galdu gabe jarrai dezagun baina.

“Jainkoak esan zien: “Hara, zeuei ematen dizkizuet lurrazalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruta-arbola guztiak; horiek izango dituzue janari. Abere, zeruko hegazti eta lurrean narraska dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belar hezea ematen diet janari”.

Eta hala izan zen. Eta egin zuen guztia oso ona zela ikusi zuen Jainkoak. Honela seigarren eguna burutu zen.

Honela burutu zituen Jainkoak zeru-lurrak, berauetan dagoen guztiarekin. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak berak eginiko lana eta zazpigarren egunean lanari utzi, eta bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedeen kreazio-lanetik. Hau da zeru-lurren kreazioaren historia”.

Hau da kreazioaren historia ofizialena. Jainkoak zazpi egunetan egin zituen diren guztiak, *Disoluzio agiriak* zazpi ataletan banatu dut, neurri handi batean kreazioaren kontakizun horren oihartzunaren eraginez, bizi ditugun kontakizuna beste modu batera bihurtuz, egina eta mamurtua etorri zaigun lasta hori nolabait eta oso axaletik deseraiki, edo antzaldatu eta guztiz libreki, nahas-masean emateko. Bestelako lotura eta zainen xerka, bestelako hitz egiteko tonuan jaulkiz hitzak.

Baina gure kontakizun edo errelatoak norbere gorputzean du hastapena. Gorputza da mundu honetan izateko emana zaigun espazio eta denboraren ontzia. Gure bizialdia nolabaiteko naufragiotzat har badaiteke, gorputza da naufragoaren salbazio-ohola, jakinik salbazio eta erreskate aukera bakarra ohola bera, gorputza dela.

Halako baten naufragoari akituko zaio denbora eta ozeanoak irentsiko du; gorputza bera da aldi berean ohola eta gorputza da naufragoa. Inon ez zen beste lehorrik, nor berarena edo lagun hurkoaren gorputza ez bada.

NON

Ezin naiz hemendik apartatu

ezin dut beste inora:

behaketarako

zalantzarako

beldurra
herra kabi dakidan
historia aztertu eta
zuzentzeko
berresteko
adikor izan zein
giza korridoreak eratzen
minutuen zimurak haztatzeko
zoko bat bilatu arrazoiari
egiteko
eta sentitzeko

eta hori hemen
beste inon ezin dut

nire egunen orri hautsietan
beste inor aurkitzeko
borroka egiteko
maitatzeko
ezin dut beste inora
gorputz hau daukat
besterik ez
lurren urtetsu hau
ez beste ezer

Hala ere, inoiz ez gara geure bakuntasunean isolaturik, inoiz ez gaude guztiz bakarrik. Hainbeste pertsonak, presentziek, orbanek, ferekek habitatu dugu gorputza, gogoan barne. Orkestra bat bizi da gure soinaren baitan.

Bistan da, bestalde, gorputza dugula jendarterako eta politikarako zubi. Nortasuna osatzeko lanak posizio hartze etengabea eskatzen du denean. Eta identitatea moldatze eta ahalduntze ahaleginetan sarri osatu nahiaren eta osatu ezinaren arteko tinkadura ageri da.

Sormenerako, eta jainko txiki edo prometeo molde bat izateko bidea ere zabal lezake gorputzak, eta adimenak ere bai fikzioa edo literaturaren bitartez sikiera. Frankenstein bera da horren erakusgarri garden samarra.

“Hainbat gau eta egunetako lan-neke sinestezinen ondoren, sortzearen eta biziaren kausa aurkitzea lortu nuen; eta ez hori bakarrik: ni neu izan nintzen gai materia bizigabeari bizia emateko”.

Aldatzen ari den gorputz eta jendarte batean bizi gara, horrek ere badu pisua liburuan. Urteen eta bizitakoaren arrastoak. Zahartu arau zentraltasuna galtzen ari gara, erditik gero eta aparteago mintzo gara. Hori hala bada, kezka betortzak ausikika datoz: zein dira gaurko jendarteak behar dituen hitzak?, ba ote naiz gai egun garrantzia duten auziak, gorabeherak zein diren igarri eta horiei buruz taxuz hitz egiteko?

Bestelako mintzamoldeen galdea eta itxaropenetik ere badagoela egingo nuke. Zazpi eguneko kreazio modu bat atzeraka bizi, historia baten baitako hustu aldi bat, desalojo bat, agian hainbat gezurren aitzi antolatutako uxaldia ere izan nahi luke tarteka bilduma honek. Asmo eta gurari gehiegi gauza onerako.

ALDAKETAK DATOZ MUNDURA

Mahaiaren inguruko solasak diost
hitzez eskas nabilela
ez dakidala gorritzen ari diren hostoen izenik
ibai sutuaren azalean zure poza igaro dela
distiratsu bai
baina gertu eta eskuragaitz:
beste poesia molde bat behar du une honek
herri honek
eta ez daukat nik
jada ez dago hemen
dena mintzo da baina
nire aldiaren seinaleak ez ditut barrundatzen

erraz dakar txingor ale batek hurrengoa
bestelako ekonomia eredia
maitasunak makinen urtarora
edo oihan itsu batera naramala
aurreikus nezake:
behartzen denarentzat
familia jada ez da aterpe segurua
—hain gutxi estatua—
ixten diren ateen danbatekoak
zuri eta niri zer
inor kanpoan edo barruan uztea
berdintsu bazaigu

oinezkoen eta auto gidarien artean trabaturik
egungo argitasunak ez daki
ez biharkoaren promesarik dakarren
ez itxaropena urtu egingo den azkenean:
bizitzea usadio hauskorra da

herri honek
bestelako zuhaitzak eta ilunabarrak behar ditu
bestelako hitzarmen moduak
bestelako lantegiak eta armak
bestelako itsaso bat
denbora neurtzeko beste kristal batzuk
—salbaziorik egundo aginduko ez duten orenez—
bestelako hortzak
bestelako istripuak eta poetak
hildakoen batzarretan denbora larregi
emana dut aspaldi

aldi honek
bere mendearen
bere klasearen
bere emetasun berrituaren mintzoa behar du
beldarrak
lupua eta
txoriak bezala
bere aroaren ekintzak
jaulkitzeko prest den
justizia poetiko bat
jainkorik gabeko zazpi eguneko disoluzioan

Poesiak gogora ekarri nahi du, izan mundu honetan badela denontzako toki
duina, baina bakoitzari dagokion leku hori bilatzea norberarena ez ezik
guztion ardura ere badela.

Bibliaren kontakizunaren hariak bitartean berean ari dira.

“Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudur-zuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona
bizidun bilakatu zen. Ondoren, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Eden-en, ekialdean, eta hantxe ezarri
moldaturiko gizona. Orotariko zuhaitzak sorrarazi zituen lurretik, ikusgarriak eta fruitu gozodunak.

Baratze erdian bi zuhaitz ernearazi zituen: batak bizia ematen zuen eta besteak dena ezagutzeko ahalmena.

(...)

Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ezarri zuen, landu eta zain zezan. Eta agindu zion: «Baratzeko zuhaitz guztietatik jan dezakezu: baina ez jan dena ezagutzeko ahalmena ematen duen zuhaitzetik; hartatik jaten baduzu, hil egingo zara»”.

Garbi antzean dago, heriotza da jakin gosearen azken ordaina. Jainkoak agindutakoari men ez egitearren pagatu beharreko bahia. Ezar litezkeen elkartasun aihen eta loturak izango dira hala ere, heriotzaren aurrean aringarri bat beharbada.

LOTUAN ASKE

20. mendearen bigarren erdian sortu ginen

ordura arte

milioika jenderen baitan

larba eran egonda beharbada

denboraren ozeano abisalean

ez hilik

baina izatera heldu gabe zeharo

halako batean baina

lurraren eta odol berriaren

indarrek deituta bezala

beso arte batek jaso

inoren taupadak ezagutzen ikasi eta

oinez hasi ginen:

artean gure hitzak eta ekintzak

norantz lerratuko ziren igarri ezinik

jendeek eta urteek

marruskatu gaituzte harrezkero

eta eman izan digute eskura

haizeak zafratu

bibelarraren dantza ilunabarrez

beldurra kantu eder eginik

eta piztia izu baten bihotza bezala

zamalkatzen den herri bat

hilik ez
baina gu zeharo izatera
iritsi gabe egon ginen
mundua mundu denetik
jaio ginen arte

eta orain badakigu
mundura jaio den oro
hil egingo dela noizbait:
denok hilko gara
baina baldin gure hitzak eta ekintzak
non eta noiz mamitu asmatzen badugu
gutziz izateari utzi gabe

bestela
berriz
munduak mundu izaten segituko du
gu gabe baina
zeharo

Hain gara zaugarri eta hain kementsu aldi berean. Oso gaude zatikatuta, onenetik eta makurrenetik daukagu, eta hortixe isurtzen dugu, garena dariola ibili ohi gara mundu aldi honetan.

Bizitza nahieran moldatu ezinaren aitzinean izateko erak, jokatzeko estrategiak aldezte a izan daiteke betikotasunaren antzera denbora zedarritzeko manera? Transzendentzia sotil, mikroskopikoa nahi bada, larbarioa agian; eta hori guztia keinuetan, pentsamenduetan, usadio eta itzal batzuetan txertatzen zaigu. Posible ote metafisika materialista bat objektuetan, jarreretan, hitzetan nahiz literaturan mamitzen dena?

Kontua da jendarte bat behar genuela, eta tradizio judu-kristauak asmatu zuen hori zelan azaldu, etxe-alde jokatzuz beti ere.

“Gero, esan zuen Jainko Jaunak: «Ez da on gizona bakarrik egotea; egin diezaiodan berari dagokion laguna».

Jainko Jaunak, landako abere guztiak eta zeruko hegazti guztiak lurrez moldatu eta gizonari eraman zizkion zein izen ezartzen zien ikusteko; honela, bizidun orok gizonak ezarritako izena izango zuen. Beren izena jarri zien, beraz, abere guztiei, zeruko hegaztiek eta piztiek; baina berari zegokion

lagunik ez zuen aurkitu. Orduan, Jainko Jaunak lozorroan murgilarazi zuen gizona. Loak hartu zuenean, saihets-hezur bat kendu zion, hezuraren hutsunea haragiz bete ziolarik. Jainko Jaunak gizonari kenduriko saihets-hezurrez emakumea moldatu eta gizonari eraman zion. Honek esan zuen:

«Hau bai dela

ene hezuraren hezur,

ene haragiaren haragi!

“Emakume” izango da deitua,

gizakumeagandik

izan baita hartua».

Hargatik, gizonak bere aita-amak utziko ditu bere emaztearekin elkartzeko, eta bat bera izango dira.

Biluzik zeuden gizona eta emaztea; hala ere, ez zuten elkarren lotsarik”.

Hona hizkuntzaren eta gizarte asmo baten lehen urratsak, Jainkoarekin kidetzan arraren gustura eginak.

Begi eman diezaiozun orain bikotekidearen premia nola adierazia dakarren Mary Wollstonecraft Shelleyk asmatutako izakiak, zaputz handi baten saminetik ernea, jendarte etsai batera jaulkia izan baitzen hura.

“Gogoan nuen Adanek bere Kreatzaileari eginiko erregua. Non zen baina nire sortzailea? Hark bertan behera utzia ninduen, eta nik, bihotza garrasturik, madarikatu egin nuen”

(...)

“Bakarrik nago, samindurik; gizakiek ez dute nahi nirekin harremanik; nire moduko izaki itxuragabe eta izugarri batek, ordea, ez lidake muzinik egingo. Nire espezie berekoa izan behar du lagun horrek, eta nire akats berak izan behar ditu”.

(...)

“Emakume bat sortu behar duzu niretzat, harekin parteka ditzadan bizitzarako ezinbesteko ditudan nahitasuna eta errukia”.

Eskari horretan, kondenatuaren dei solidario eiteko bat ere bistaratzen zait niri erdi estalian Frankesnteinen izakiaren erasian ...

Dena dela modu problematikoan besterik ezin da bizi norbere gorputzaz jabetzea, kontzientzia hartzea alegia, kontzientzia kritikoa, eta burujabetza erdietsi nahi izatea.

LEKUAK HUSTU

oihal garrantzan bildua heldu da goiza:

desarmatzen ari naiz nire gorputza

ez nago seguru

inoren zuloetan sartzen duguna ote garen

inoren zuloetatik ateratzen duguna garen

baina desarmatzen ari naiz nire gorputza

zuztar sare trinko batek

kontinente guztiekin lotzen banau ere

gorputz hau deskolonizatu guran nabil:

geure zuloetan gorde duguna ote garen

ez nago seguru

baina nire gorputza deskolonizatu nahi dut

diruaz eta jabetzaz amil izurik gabe hitz eginez

naizenaren bila zuloz zulo hobiz hobi

desokupatu egin behar nuke nire gorputza

txaraka batzuk ebaki eta barrutik nola atera

ez nago seguru

baina desokupatu egin behar nuke nire gorputza

inon diren zulokoteetan agian izan bide da

desmundu beste gorputz deslokalizatu

Inoren aurrean desarmatzea, arropak erantztea, biluzten hastea, idaztea, zenbait gauza edo egoeraren hasiera edo historia ulertzen saiatzea bera, bada disoluziorako prestatzea. Besteek irakur dezaten idaztea jarduera sozial eta

publikoa da, hautatzen ditudan gaiak ere sarri askotan partikularrak izan arren
arnasa kolektibo baten abaroan emanak daude.

Estrategia estetikoa da ahots intimoaz gertutik hitz egiteko joera. Gisa
horretan, beste asko lez, gu ere txikiago eta askeago izateko aldarriak inguratu
nahi du poema hauetako hainbaten soslaia.

Mapa edo agiri ere bagara geure hezur-mamitan gatibu, eta gorputzak bata
besteari hurbildu ahala elkar erre dezakegu, edota elkar irakurtzen ikasi, edota
... auskalo.

MURMURIOEN JAUREGIA

Agiri artetik erauzita

eskuetan aspaldiko mapa bat daukat

begirada suharrek maiztutako orri gainetik

pasatzen dut hatza:

jendea dabilela barrundatzen dut

muga lerroen marretan

amatatzea ahaztutako argi batek

sukalde bat erakusten du urrunean

joanak diren txorien hegadak

hartzen du airea

jada ez daudenen ekinbideak

gorputzak promesak

laino itsuan proiektatzen dira

papereko koipe orbanak

etorkizunerantz narama

gailur baten izena ezabatu da

hango haizea hango harrien hatsa...

neuretzat gorde ditut

esaten ez dakizkidanak:

mapa hitzuna da

herri desagertu baten

bilaketa antolatua

kezka jarioago ez ote da hilobien aurrean

agur dantza bat egitea baino

eta izenik irabazi ez duten

herrien ezlekuetan barrena

naramate hatzek berdetik horira
idatzi gabeko historian jarria burua

lautan tolestu mapa eta banoa zugana
euriak bustitzen ditu kaleak
hor diren pertsonen printzipioak
deklarazioak irritsak
gorputzak nazioak:
tristura ezinduari harrika ematen
entseatzen da poesia baina
muga arte koloreztatu horietan
margo gorritik urdinerako gaman
zauritua edo hila
jendea suertatzen da
zauritua eta hila
jendea gertatzen da beti
gero otea eta haurrak hazten dira berriz
haran eta zelaietan ausazko musika eta errimaz

atzeko patrikan sartuta daramat mapa
baina gogora iristen zaizkit
aldarri ozenak eta
bulkada aunitzen taupadak
lasterka hotsak eta
diskrezioa agintzen duten ahotsak...
gero zure aurrean biluztuko naiz
eta erakutsiko dizkizut
jende ilarak dendak portuak
neure larruan itsatsiak ditudan mapak
eta bilatuko ditut zureak
hala bidera ditzagun
kontinentez besteko lankidetzak planak
kultura arteko aliantzak
pasabide humanitarioak...

maiz bakarreko mentzen sendagarri
suertatu ohi dira mapak eta
pertsonen arteko enkontru kartografikoak

Debekuak ordean edozein itun molderen oinarrian daude, eta zeru eta lurren
giltzak bere esku dituenak hierarkia zorrotza du ezarria, agintzen duena
larteriaz bete dadin. Eskerrak tentaldiaren libertate bulkadari!

“Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztiarik maltzurrena.

Sugeak esan zion emakumeari:

—Jainkoak debekatu egin dizue, beraz, baratzeko arbola guztietako fruituetarik jatea?

Emakumeak erantzun:

—Ez, jan dezakegu baratzeko arboletako fruituetarik. Baratze erdian dagoen zuhaitzaz bakarrik esan digu Jainkoak: «Ez jan horretatik, ezta ukitu ere, hil nahi ez baduzue».

—Ez zarete inolaz ere hilko —esan zion sugeak—. Ongi daki Jainkoak, hartatik jan dezazuenean, begiak zabalduko zaizkizuela, eta bera bezalako bihurtuko zaretela, dena ezagutzeko ahalmena lortuz.

Ikusi zuen emakumeak fruitua gozoa zela, arbola ikusgarria eta jakituria lortzeko desiragarria. Hartu zuen, beraz, haren fruituetariko bat eta jan egin zuen. Gero, bere senarrari eman eta honek ere jan egin zuen. Orduan, begiak zabaldu zitzaizkien eta biluzik zeudela ohartu ziren. Piku-hosto batzuk josi eta estalki bana egin zuten”.

Begiak zabaldu eta kontzientzia hartzea dena bat da: klasea, generoa, nazioa ... Sagarra jatearen ekintza iraultzailea baina fatalitatez kargaturik dator, bidesari latza dakarrela.

Hala ere, estatus berri horretan, paradisuetik kanpo ere bada zeren alde egin eta borrokatu, poesiak besteren tokian jartzen lagun diezaguke, eta herrien nahiz pertsonen arteko gatazketan postura hartzeko gertatu. Txikien errepublikak aldeztu esaterako.

EGUN TXIKI BAT: 2017KO URRIAREN 1A

gaur atzoko eguzkiak
iratzarri nau eta
gogorra zegoen

pinu edo akazia egurra
izan nahi nuke atzo
gaurko berripaperen

orea osatzen
bobinetara bilguak
ekarri dituzten eskuak
izan nahi nituzke
izan nahi nuke
orriak ebaki dituen
gillotinaren ahoa
eta euri beltzean
etzanda isuri diren hitzak izan,
kaleak eta jendea oinez
begiradaren kantoiak betetzen
irribarre hunkitu batean

ez nau leku gailenean jartzen
epika pertsonalak:
ez daukat ez iragan
ez orain leinargirik
puskatan zatikatuta egon naiz
zaharkin bildumak bezala
eta geroaz zer esan...
nik ez dakit zein diren
gaur behar ditugun hitzak
horregatik egongo da munduan
hainbeste poeta

Kataluniara begira nago bruma artean
atal sakabanatuak bilduz
gorputz libre izateko gogo honek
non hasi eta noiz buka
igarri ezin den erauntsiaren pean
erabakiak hartzen dituztenen
bihotzeraino narama

zaharraren zaharrez
mundu berri zaizkidanak
osatu dira nire baitan
behin berriro sortuak
amodioaren borrokan:
zangoak gerria sama...

nire herriak bizi izan dituen
mende guztien artean
egun txiki baten
printzen bila nabil

eta euri beltz batean
jausitako hitzek
non etzan izan dezaten
gorputzen koreografia
deslotu bat josten ari naiz

bart eguna abiatu eta
akitu egin zen
zeuzkan minutu guztiak
isuri zituenean
gero
hasi behar zuena
hasia zela ikusi eta
jendea eta esperantza
gorde egin dira
zuhaitzen barruan...
orain den-dena
beste norabait doa

pinu edo akazia egurra
izan nahi nuke atzo
gaurko berripaperen
orea osatzen
bobinetara bilguak
ekarri dituzten eskuak
izan nahi nituzke
izan nahi nuke
orriak ebaki dituen
gillotinaren ahoa
eta euri beltz batean
etzanda isuri diren hitzak izan
kaleak eta jendea

gaur atzoko eguzkiak
iratzarri nau:
ez dakit zein diren
orain behar ditugun hitzak
horregatik egongo da
hainbeste poeta munduan,
eta beharbada
atzoko eguzki hori
gogorra dagoelako ere bai

Mundu honetan jainko izatera jokatu dugunean, naturaren eta jendartearen anabasa geure irizpideen arabera antolatzeko, gauzak gure alegiazko egilearen antzera eta irudira egin ditugulakoan nago. Uste dut geuk sortu ditugun horietan, dela ekonomia aldetik, dela gizarteari begira, ez garela delako jainko jende hori baino askoz okerragoak izan. Prometeo eta San Martin Txikito eskola batekoak dira.

Alegia, ez Jainkoa eta ez gu, sortzaile eta sorkari garen aldetik, ez ginatekeela oso gora iritsiko bikaintasun edo eszelentzia galgaren kosketan zorrotz neurtuz gero. Alde horretatik giza eskubideen deklarazioak bere ahobiko xaloan oinarritzko test dira giza harremanetako eguneroko ariketan.

JATORDUA

Sarri hartzen dut zopa beroa
atsegin dut
gosea apaltzeaz bat
jartzen dizkit eskura
tresna samurrak
eskaintzen dizkit ahora
aspaldiko mundu bateko osagaiak
indarberritu egiten nau eta
narama oroimenen basora

zopa horretan
ageri ohi dira izarrak
ageri ohi dira hizkiak
abestien usain sakonak

ausaz
nahi gabe bezala
inoiz jakinminak
zoparen barrunbeak
arakatzera nakar
eta tarteka
goiburu asaldagarriak
jazoera latzen oihartzunak
lore sortak
eta ohol lehertuak
gogoeta itunak

naufragio hondarrak
kitzikatzen ditut
koilara muturraz
eta noizbait
itotako jendea
aurkitu izan dut
nire plater ertzean
beso oinak zabal
izarrak bezala
euren hitz solteak
galderak
barreiatu
nire gogoaren haitz artean

orduan nire zopa hori
eskaini nahi izaten diot
ni bezala oharkabean
edo ekin gabe
bizi denari
berotu dakion odola
pittin bat
apur bat haserre dadin
bat egin dezagun
bizi garen munduarekin
bost minutuz behintzat,
eta gero ekin

eskatzen dudana bakarra da
zopa ez dakidala
hoztu sobera
abesti hautsiak
eta izarrak
itotako jendea
bertan den artean
ez dakigula hoztu
egunero jaten dugun zopa
eta ni bezala oharkabean
edo ekin gabe
bizi denari
berotu dakion odola
pittin bat
apur bat haserre dadin
bat egin dezagun

bizi garen munduarekin
bost minutuz behintzat,
eta gero ekin
plater bat hausteko sikiera

Fruitu galarazitakotik jateak zigorra ez ezik adimena, argia eta kondena ekarri zien emakumeari eta gizonari. Xehetasun dramatiko hertsagarritz jasoa dator *Genesisian*.

“Arratsean, gizonak eta emazteak baratzean zebilen Jainko Jaunaren oin-hotsa entzun zuten eta harengandik gorde egin ziren zuhaitz artean. Baina Jainko Jaunak dei egin zion gizonari:

—Non zara?

Gizonak erantzun:

—Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, biluzik nagoelako.

Jainkoak esan zion:

—Eta nork jakinarazi dizu biluzik zaudela? Galarazi nizun arbolako fruitua jan al duzu?

Gizonak erantzun:

—Laguntzat eman didazun emakumeak fruitua eskaini dit eta jan egin dut.

Jainko Jaunak esan zion emakumeari:

—Zer egin duzu?

Emakumeak erantzun:

—Sugeak engainatu nau eta jan egin dut.

Orduan, Jainko Jaunak sugeari esan zion:

«Hori egin dualako,

madarikatua hi abere guztien artean

eta basapiztia guztien artean!

Sabel gainean arrastaka ibiliko haiz

eta hautsa jango duk

heure bizitzako egun guztietan.

Elkarren etsai egingo zaituztet

hi eta emakumea,

hire eta haren ondorengotza;
honek burua zapalduko dik
eta hik orpotik helduko diok».

Emakumeari esan zion:

«Haurdun gelditzean,
oinazeak ugalduko dizkizut
eta saminez izango dituzu haurrak;
irritsak senarrarengana
bultzatuko zaitu,
eta hura izango duzu nagusi».

Eta gizonari esan zion:

«Emaztearen esanari jaramon egin
eta galarazi nizun zuhaitzetik
jan duzunez gero,
madarikatua lurra zure erruz!

Nekearen nekez

aterako diozu janaria
zeure bizitzako egun guztietan.

Sasia eta laharra emango dizkizu,
basalandarez elikatu beharko duzu.

Zeure bekokiko izerdiz

jango duzu ogia,

lurrera itzuli arte,

handik izan zara hartua eta:

hautsa zara

eta hautsera itzuliko zara»”.

Epaia ebatzi da: “zor nauzu eta paga nazazu”. Hona lerro gutxitan emana familia molde bat (patriarkatua), ekonomia modu jakina (jabego pribatua) eta jendartearen paradigma bat (estatua) betikotzekotan eraikitako egituratze zurruna. Osatu nahi bat eta osatu ezin bat ageri zait barruan sarri: behar ditudan hitz doiak aurkitu ezina batzuetan, eta bestetan, edo aurrekoarekin batera, bizitza eskutik hartuta erabili nahi amesgurazkoa.

Bistan da paradisuatik bota gintuztela, baina batzuk geroztik asmatu dute hala ere pribilegiozko eremuak eraikitzen desparadisu honetan. Eta sarri, munduan gidari dabiltzanek paradisu hotz bat eskaintzen digute otzan jokatzearen pagutan. Kezka horrek ere bizi gaitu, nola ez!

Berotze globala tarteko, zirkulu polarreko izotzak eta glaziarrak urtzen ari dira, baina aldaketa garaiotan urtzen ari dira halaber hainbat harreman molde eta humanitate neurri duinak mamitzeko konbikzio eta kondizio saila. Eta delako paradisu hotz hori ere urtuko da noizbait, eta geure zekenkeria ezti-jarioan itoko gaitu agian.

DIRUA LEGE

hatzak klaskatzen baditugu
entzun bedi urrun galduetako mendi batean gauez
eta belarri atzean ilunarekin sumatu
euli saldoen elitroen fereka
—zaila behar du antipodak jo eta
norbere bizkarrari hitz egiteak—
argi hildu batek biltzen gaitu
kontu gozo-minak esanda
abandonutik gordez

denbora gorputzetan hartzitu eta
ortzia aldiro garbitzen den arbela da:
ondoaz ondoan jarri edo egokitu arren
inor gutxi akordatzen da
elkarren aldamenean posatutako argazkiez

ederra izango da inoren oharkabea
igarotzen jakitea
larrialdietako boxetan

espanturik gabe itzaltzea
su onak bezala

dolu idazkietan lelo kroskodunak datoz azalera:
gora egin zuten inoiz
zahardade bakeoso baten errezelek limurtuta
itxaron ezin izan zutenek
eta bizitzaren zoruaren aurka lehertu dira

ez da hautu bat gizonezkoa izatea
edo bai
ez da hautu bat beharra, lana
edo bai:
badago nahikoa ogi denontzat
ez aski gupida ordea
ez aski lotsa
—lagun hurkoa ahozabalik edukitzeko
ez da nahitaez dentista izan behar—

ogia baino errazago egiten da dirua
besterik dira maitasunaren legeak-eta,
gu hona sortu aurretxoan
ogirik ez zen beste munduan
—non eta ezmemoria hau ez den ezerezaren hazkurri—

bizitzak tori eta tati egiten badigu
hor izango da edo bideko garraioa
—Joao Pires Olano Salvesen—
edo ozeanoaren marruma
edo hodei arteko hostajea
joko-etxeen bankuen eta elizen
porrot orokorraren aski alternatiba sinesgarri gisa
ilunabarreko katilu hondotik
oraintxe eratzen eta desegiten hurrena

eta tarteka uhuri egingo dugu zeri jakin gabe
paradisu elurtuko otsoek bezala

Liburuan maiz ageri den beste ideia da zatiz, txatalez, asmo puskaz osatuta gaudela, gizabanako gisa eta norbanako garen aldetik. Paradisutik bota egin gintuztenez, harrezkero hemen gabiltza elkarrekin era duin batean nola moldatu asmatu ezinik.

LURRAREN DARDARA SOINEAN

Nor jarriko zenuke ondoan
inork nahi ez zaituenean
nori azalduko zenizkioke
bele batek
argindar kable gainean
sortzen dizkizun aieruak,
ibaiko harriak noren ekinaren
edo oinazearen ordain diren
nortzuen urdailetan higituz
egin diren hareazko mendiak
eta horrekin guztiarekin zelako
proiektu egitasmo programa
era daitekeen
bi pertsonatik gorako
jendarte batean

nire hotz dardara
kresala mediterraneoaren
luzapena ote
nire hitzen meatzaritzak
badu erantzukitik
ezinaren alboko bulego batetik
datorrelako ustean,
keinuetara jotzen dut
beldurrak edo pozak
barrena hartzen didatenean

nor izango zenuke lanerako
ia hutsik denean kalea
nor gogoan
zigarroa erretzen
nekez doanaren alboan
maleta pisuen garraioan
nor jendea jagoteko
polizia gabeko paisaia batean

nor izango zenuke etxean
nor hartuko sukaldean
nor errezel atzetik
neguari so
nola osatuko zenuke bizitza
egon ere ez dagoen jendez
izan baden
baina egon ez dagoen jendez
ahaztu dituzunekin herri bat
osatzen ari bazina bezala

agian halako batean
zuri ere
beste askori legean
haziko zaizkizu hortzak
ilearen artean
begiak sutan
bekainak sarritu eta
ahoa handituko zaizu
lurra sumatuko duzu
oinen azpian urtzen
eta bakardadea erruz
hedatzen,
hurbileko asko
nola galtzen den
dolutuko zaizu eta
bihotza fruitu siku gisa miretsi
herri sarrerako
erakusleihoetan

lurra sumatuko duzu
oinen pean tantaka
eta agian
bekainak sarritu
ahoa handitu
eta haziko zaizkizu hortzak
ilearen artean
eta begiak sutan
naturaz gaindiko
izaki zerbait
bilakatu zarela
etorriko zaizu
beharbada
inoizko batean

baina egizu kontu
zu ere
zure aurretik
beste asko bezala
azken aurreko gizaki
bihurtzear
egon zaitezkeela,
jada zu zeu
eta ispilu barrutik
begira duzuna
soilik zaudetela
eta hurrena agian
zu zeu gabe ere
gera zaitezkeela...

eta zuk nor jarriko zenuke zure ondoan
harriak mendiak eta argindar kableak
beste inor ez dagoenean

Pertsonak hainbeste eragin, aldarrez eta printzaz eginak gaudelakoa nabarmena
zait neure burua besteren ispiluan luze islatua ikustearen poderioz,
munstrotasunaren izpiak oso aparte utzi gabe.

Bestelako neurri eta zabaltasun batean landua eta emana dator baina
Frankenstein-en orrietan, arrotz eta munstro izatearen bakardadearen lazgarria.

“Nire bizilagunen forma perfektuek miraturik nindukaten –haien graziak, edertasunak eta azal finak-;
zer nolako izuak hartu ninduen, ordea, neure burua ur putzu gardenean ikusi nuenean! Hasieran atzera
egin nuen, ezin sinetsirik neu nintzela ispiluak islatzen zuena, baina, gero, argi eta garbi ikusi nuen
benetan nintzela naizen munstroa, eta eroritasun- eta mortifikazio-sentimendu ezin mingotsago bat
nagusitu zitzaidan”.

(...)

“Madarikatu nire sortzailea! Zergatik egin zenuen munstro bat hain izugarria, zeuri ere higuinaren
higuinaz atzera eragin zizuna? Jainkoak, bere erruki onez, eder eta xarmagarri egin zuen gizakia; bere
irudiko. Nire gorputza, ordea, zurearen antzeratze narras bat baino ez da; are gorrotagarriagoa,
elkarrekin duten eiteagatik. Satanek bazituen lagunak, bazituen miresten eta adoratzten zuten deabru
kideak; ni, aldiz, bakarrik nago, denek gaitzetsia”.

Halako batean, paradisuatik egoztea ñabardura oso esanguratsuz hornitua erakusten du apartatu dugun tradizio judu-kristauaren testuak.

“Gizonak bere emazteari Eva, hau da, «Bizi», eman zion izen, bizidun guztien ama delako. Jainko Jaunak larruzko arropaz jantzi zituen gizona eta emaztea. Gero, Jainko Jaunak esan zuen: «Horra gizakia gutariko bat bihurtua, dena ezagutzeko ahalmena duelarik. Ez dezala orain bizi-arbolako fruiturik hartu eta, hura janez, betiko bizi». Beraz, Jainko Jaunak, Edengo baratzetik bota egin zuen, lurra landu zezan, handik izan baitzen hartua. Gizakia bota ondoren, izaki hegaldun batzuk jarri zituen Edengo baratzearen ekialdean, suzko ezpata distiratsuak zituztela, bizi-arbolarako pasabidea ixteko”.

Nola zen antzinako aldarri haietako baten kalko traketsa? *Gorputz errepresiboak disolbatu?* Hor dugu ba polizia eta bere zereginetako bat ageri askoan.

Jainkoa beldur zen nonbait hilezkor bilaka gintezen ... Hala ere zer pentsatua ematen du, baldin egin zitezkeen bi aukera bakarrak honokoak baziren: bateko, hilezkor izan eta horrekin batera ezjakintasun otzana eta esklabo izatea onartu, eta besteko, jakituriaren ordainetan hilkor izatea hobetsi.

Horixe da ba dagoena, eta hemen gabiltza tirriki-tarraka batean harrezkero.

ERAUNTSIEN BELDUR

b
errotze globalaren
eraginez edo
gidari noanean
atzerako ispilura joaten zait
begirada
eta inoizka
pasabide humanitarioak
zabaltzen dizkiot pentsamenduari

euritakoa jantzita oheratzen
direnetakoa naiz

justizia erauntsia noiz helduko:
borroka eta atsedeen eremuak
maitasunarentzat
adimenarentzat inguru bildu bat
atari zabalak eta
denbora doi
emana zaigun ikara
estu bridatzeko

teoria perfektuen aldamenean
zazpi bider ito naiz
arrain abisalen albaitero:
hau da nire ordua
hau da nire mundua diot
oraindik uda da paradisu
negua hala ere aspaldi iritsi zen
gure etxeko hozkailura

batzuetan etortzen zait
neure aldiaren laguntzaz
bakardadea
txangurrua donostiar erara
bezainbesteko mainaz
landu dudala

eta etortzen zait halaber
munduan heriotza kausa
nagusi dirua dela
hura ondo banatzen
asmatuz gero ordea
apur bat ohartu gabe
apur bat ezjakin
hil samarturik eta
aldika
erdi zoriontsu
besteren aurpegi
eta gorputzetan
luze biziko garela denok

gauetz errepidean
animalia batzuk
ikusten ditut
iluna hartzen

han hemen etzanda
eta beste erauntsi baten
beldurra etortzen zait...
baina zorionez hitzek
geurekin bidaiatzen dute
autoan goazenean

Irakurri berri dudana da *Disoluzio agiriak* ixten duen testua, horren parean aski era eder eta etsiagoan amaitu zuen berea Mary Wollstonecraft Shelleyk.

Zorionez ez gaude Victor Frankensteinek egin zuen kreatura bezain bakarrik, ez denok eta ez beti behintzat. Guk hor dugu eskueran berdinen edo antzekoen arteko elkar hartzearen balizko aterpea. Horretan da gure egitasmoen indarra.

Ondokoak dira izozmendi artikoez lurtutako itsasoan dabilen ontzitik hark bere kreatzaileari eskaini zizkion hondar hitzak, eta liburuko azken plano sekuentzia.

“Baina laster –oihu egin zuen, suhartasun solemne baina goibelez-, hil egingo naiz, eta ez dut gehiago sentituko orain sentitzen dudana. Laster iraingiko dira oinaze kiskalgari hauek. Garaileen gisa igoko naiz nire su-metaren gainera, eta poz hartuko dut garrek ematen duten oinazearen agonian. Su handi horren argia iraingitzean, haizeak itsasora ekortuko ditu nire errautsak. Nire espirituak atsedean hartuko du, eta, pentsatzeko gai bada, bestetara egingo du inondik ere. Agur”.

Hori esanik, kabinako leihotik atera, eta ontziaren ondoan zegoen izotzezko baltsaren gainera jauzi egin zuen. Uhinek berehala eraman zuten, eta urrutira galdu zen, iluntasunean”.

Gauzen eta hitzen kontzientzia hartzea, sentimenduak adieraztea ez ezik sentimenduak sorraraztea, eta ederraren lilurak beste kontzientzia moduetako ate-leihoak irekitzea bada poesiaren egitekoa. Horra gure ekinaren muina eta zera: hitzak entzun, esan eta idatzi. Bizitza alegia, pertsonekin bizitzea hitzak lagun hartuta.

Eta nire sortzaileari eskainitako testu labur hau gaurko saioa ixteko.

AMA

berrasmatutako egun haietara
argi epeleko orduetara
jaio nahi nuke berriz
orri pasa lasaian
galdutako usainak eta
akitutako ferekak
zaratarik gabe berritu
geure artean

ezinaren aurrean jaiki
eta minutu eramangarriak
txirikordatu nahi ditut
bizi ez direnen gomutaz
bizi direnentzat...
segundo ederren itzaropena
elikatzen ari naizela uste dut
zure bila nabilenean

eta oherakoan
zuk erakutsi bezala
gauero ixten ditut
paradisuko atean